

23. ORDENANTZA, KIROLDEGIETAKO ZERBITZUEN GAINEKO TASAK ARAUTZEN DITUENA

1. ARTIKULUA. KONTZEPTUA.

Erandioko Udalak udal kiroldegietako zerbitzuen gaineko tasak ezarri ditu Ordenantza honetan xedatuaren arabera eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan xedatutakoarekin bat etorriz. Ordenantzaren 3. artikuluko 2. idatz-zatian jasotzen dira aplikagarri diren tarifak.

Bazkideek kiroldegietako igerilekuak doan erabiltzeko eskubidea izango dute. Horrez gain, tarifa bereziak izango dituzte aplikagarri den Ordenantza Fiskalean jasotako jarduerak egiteko, kiroldegiak zabalik dauden egun eta ordutegi ohikoetan. Kiroldegiak urtean 320 egunez, behintzat, zabalik izango dira.

2. ARTIKULUA.- ORDAINDU BEHARRA DUTENAK

Ordenantza honen bidez araututako tasak ordaindu beharra izango dute aurreko artikuluan adierazitako eta udal honek eskainitako edo burututako jarduera eta zerbitzuen onuradunek.

3. ARTIKULUA.- ZENBATEKOA

1.- Ordenantza honek araututako tasen zenbatekoa ondorengo atalean zerbitzu edo jarduera bakoitzeko zehaztuko diren tarifan bidez finkatuko da.

2.- Ondokoak dira Tasa honen tarifak:

A.- URTEKO BAZKIDETZA

Urteko bazkidetza dutenek kiroldegietara sartu eta kiroldegiak erabiltzeko eskubidea izango dute, tarifa bereziak ordainduta.

1.- Familia osoaren urteko bazkidetza. Ondokoak hartzen ditu: senar-emazteak eta familia-buruaren pentzura bizi diren 21 urtetik beherako seme-alabak, ondorengoak edo parekoak, eta familiaren tutoretzapean dauden elbarritu psikikoak, horrela errekonozituak direnean.

- Erandion erroldatuak 132,30 €
- Erandion erroldatu gabeak 193,50 €

2.- Banakako urteko bazkidetza: eskatzen duten norbanako guztiak hartuko dira

- Erandion erroldatuak 75,60 €
- Erandion erroldatu gabeak 116,20 €

B.- URTERDIKO BAZKIDETZA

Artikulu honetako aurreko paragrafoan finkatutako kasu berean, baina sei hilabeterako baliagarria, dagokion urteko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra doan tartean.

- | | |
|--|----------|
| 1) - Famili bazkidetza: Erandion erroldatuak | 79,50 € |
| - Famili bazkidetza: Erandion erroldatu gabeak | 116,20 € |
| 2) - Banakako bazkidetza: Erandion erroldatuak | 45,60 € |
| - Banakako bazkidetza: Erandion erroldatu gabeak | 70,00 € |

C.- URTEKO AZKEN HIRUHILABETEKOA

Artikulu honetako aurreko paragrafoan finkatutako kasu berean, baina dagokion urteko urriaren 1etik abenduaren 31ra doan tarterako.

- | | |
|--|---------|
| 1) - Famili bazkidetza: Erandion erroldatuak | 43,30 € |
| - Famili bazkidetza: Erandion erroldatu gabeak | 57,80 € |
| 2) - Banakako bazkidetza: Erandion erroldatuak | 23,30 € |
| - Banakako bazkidetza: Erandion erroldatu gabeak | 35,50 € |

D.- EGUERDIKO TXIKI

Artikulu honetako lehen atalean finkatutako kasu berean, baina astelehenetik ostiralera 13:00etatik 17:00etara doan tartean:

- | | | |
|-------------------|-----------------------------------|---------|
| Famili bazkidetza | - Erandion erroldatuak | 52,30 € |
| | - Erandion erroldatu gabeak | 87,80 € |
| Banakakoak | - Erandion erroldatuak | 29,00 € |
| | - Erandion erroldatu gabeak | 46,70 € |

E.- FAMILI BAZKIDETZATIK KANPO GERATUTAKO 21 URTETIK GORAKOAK

Artikulu honetako lehen paragrafoan finkatutako kasu berean, baina Erandion erroldatutako 21 eta 25 urte artekoentzat soilik, eta ikasle direla egiaztatzen badute.....41,70 €

Adierazitako bazkidetza mota horietatik edozeinetan baja emateko, hitzartutako epea amaitu baino hilabete lehenago jakinarazi beharko du interesatuak bere asmoa, bestela berriztatu egingo zaio karneta, beste barik, eta ez du izango itzulketarik jasotzeko eskubiderik.

F.- HOBARIAK

Bazkideentzako tasetan eta urteko bazkidetza kuotetan ondorengo hobariak aplikatuko zaizkie Erandion erroldatuta daudenei, familiako kide bakoitzeko urteko irabazietan ondorengo taulan zehaztutako diru kopuruak gainditzen ez badituzte.

KUOTAREN %100eko HOBARIA

- 2.150,00 € edo gutxiagoko diru sarrerak dituztenei.

KUOTAREN %75eko HOBARIA

- 2.150,01 € eta 3.350,00 € arteko diru sarrerak dituztenei.

KUOTAREN %50eko HOBARIA

- 3.350,01 € eta 4.000,00 € arteko diru sarrerak dituztenei.

KUOTAREN %25eko HOBARIA

- 4.000,01 € eta 5.200,00 € arteko diru sarrerak dituztenei.

Kasu bakoitzari dagokion hobaria jasotzeko eskaria egin beharko da eta eskariarekin batera honako agiri hau aurkeztuko da: eskatzaileen diru sarreraren arabera aplikagarri zaien hobari mota egiaztatuko duen txostena.

G.- IGERILEKUAK

Sarrera: 1.- Bazkideak: dohainik
 2.- Bazkide ez diren 21 urtetik gorakoak: 3,25 €
 3.- Bazkide ez diren 21 urtetik beherakoak:2,15 €

10 sarrerako bonua (izenduna, jabeak baino erabiliko ez duena)

1.- Bazkide ez diren 21 urtetik beherakoak:19,30 €
2.- Bazkide ez diren 21 urtetik gorakoak:29,00 €

H.- KIROL ARETOA

Aretoaren ezaugarri eta neurriekin bat datorren edozein kirol praktikatzeko, esate baterako boleibola, areto-futbola, saskibaloia edo eskubaloia.

1.- Aretoa gordetzea eta alokatzea: 19,70 €/ordua

2.- Aretoa eskatzen duten jokalarri guztiak 21 urtetik beherakoak izan eta eskabidea behintzat ordubete lehenago eginez gero..... 9,70 €/ordua

3.- Bazkideak: sarrera dohainik

4.- Bazkide ez diren 21 urtetik beherakoak:2,15 €
Bazkide ez diren 21 urtetik gorakoak:3,25 €

5.- Hitzarmena sinatuta duten Erandioko kirol taldeek antolatutako txapelketa, entrenamendu eta abar: lekua gordetzeko eta alokatzeko kobratzen denaren %50

6.- Hitzarmena sinatu gabe duten Erandioko kirol taldeek antolatutako txapelketa, entrenamendu eta abar, sarrera dohainik izanez gero:..... 15,00 €/ordua

7.- Erandioko kirol elkarteek, federazioek eta erakunde ofizialek antolatutako txapelketak, sarrera ordaintzekoa bada:

8.- Aurreko paragrafoan adierazi bezalako txapelketak, baina sarrera gisa ordaindu beharrekoaren %20ko beherapena egiten bazaie kiroldegiko bazkideei: sarreraren kobratutakoaren %10a

9.- Argikuntza

- Ertaina:..... 3,10 €/ordua



- Osoa:..... 6,00 €/ordua

10.- Baloia alokatzea:..... 2,10 €/ordua

I.- SQUASH

- 1.- Lekua gordetzea eta alokatzea 5,50 €/ordua
 2.- Bazkideak: sarrera dohainik
 3.- Bazkide ez diren 21 urtetik beherakoak:2,15 €
 Bazkide ez diren 21 urtetik gorakoak:3,25 €
 4.- 10 saioko bonua 50,00 €

J.- TENISA

- 1.- Lekua gordetzea eta alokatzea 11,15 €/ordua
 2.- Bazkideak: sarrera dohainik
 3.- Bazkide ez diren 21 urtetik beherakoak:2,15 €
 Bazkide ez diren 21 urtetik gorakoak:3,25 €

K.- SAUNA ETA BAINU TURKIARRA

- 1.- Bazkideak, eguneko lehen ordua dohainik.
 2.- Bazkideak, bigarren eta hurrengo orduak2,40 €/saioa
 3.- Bazkide ez direnak:4,80 €/saioa
 4.- 10 saioko bonua, bazkideentzat 21,60 €
 5.- 10 saioko bonua, bazkide ez direnentzat43,00 €

L.- BESTE LEKU BATZUK

Beste leku batzuk alokatzea, esaterako, egurrezko aretoa, tatamia, korridoreak eta abar, entrenamenduak, saioak eta antzekoak egiteko:

- 1.- Lekua gordetzea eta alokatzea 11,70 €/ordua
 2.- Bazkideak: sarrera dohainik
 3.- Bazkide ez diren 21 urtetik beherakoak:2,15 €
 Bazkide ez diren 21 urtetik gorakoak:3,25 €

M.- MAHAIKO TENISA ETA BILLARRA

- 1.- Bazkideak:
 - 21 urtetik beherakoak:..... 2,00 €/ordua
 - 21 urtetik gorakoak:..... 3,90 €/ordua
 2.- Bazkide ez direnak:
 - 21 urtetik beherakoak:..... 3,50 €/ordua
 - 21 urtetik gorakoak:..... 5,20 €/ordua
 3.- Materiala alokatzea (erraketak, pilotak, bolak eta makilak) 1,20 €/ordua

N.- KIROL IKASTAROAK

1.- Igeriketa ikastaroa:

a) Astean saio bat	- Bazkideak:	8,50 €/hilean
	- Bazkide ez direnak:	15,00 €/hilean
b) Astean bi saio	- Bazkideak:	16,70 €/hilean
	- Bazkide ez direnak:	30,00 €/hilean
c) Astean hiru saio	- Bazkideak:	25,00 €/hilean
	- Bazkide ez direnak:	44,50 €/hilean
c) Astean bost saio	- Bazkideak:	41,20 €/hilean
	- Bazkide ez direnak:	73,40 €/hilean

Izena emateko orduan lau urte beteta izan behar dute lau urtekoen taldean onartuak izateko.

2.- Kirol-igeriketa:

a) Astean bi saio	- Bazkideak:	34,70 €/hiruhileko
	- Bazkide ez direnak:	52,30 €/hiruhileko
b) Astean hiru saio	- Bazkideak:	52,30 €/hiruhileko
	- Bazkide ez direnak:	73,40 €/hiruhileko

3.- Aerobic, mantentzeko gimnasia, gimnasia erritmikoa, arte martzialak, baleta, dantza eta antzekoak

a) Astean bi saio - Bazkideak	15,00 €/hilean
- Bazkide ez direnak:	24,10 €/hilean
b) Astean bi saio - Bazkideak.....	38,20 €/hiruhileko
- Bazkide ez direnak:	65,50 €/hiruhileko
c) Astean hiru saio - Bazkideak.....	22,30 €/hilean
- Bazkide ez direnak:	30,00 €/hilean
d) Astean hiru saio - Bazkideak.....	59,40 €/hiruhileko
- Bazkide ez direnak:	83,50 €/hiruhileko

4.- Kirol-saioanitz aerobikoa

- Bazkideak.....	20,00 €/hilean
- Bazkide ez direnak:	27,80 €/hilean
- Bazkideak.....	50,00 €/hiruhileko
- Bazkide ez direnak:	76,70 €/hiruhileko

5.- Psikomotrizitatea, orokorra eta kirol arlokoa, pilota, atletismoa, herri kirolak, mahaiko tenis, billar, boleibol, eskubaloi, saskibaloi, beisbol eta irristaketa eskoletan, ondorengo kopuru hauek ordaindu behar dira ikastaroan izena emateko:

- Bazkideak: 19,80 €/hiruhileko
- Bazkide ez direnak: 29,60 €/hiruhileko

6.- Hirugarren adinekoentzako gimnasia.

- a) 60 urtetik beherakoak - Bazkideak: 32,10 €/hiruhileko
- Bazkide ez direnak: 48,20 €/hiruhileko
- b) 60 urtetik gorakoak - Bazkideak: 3,00 €/hiruhileko
- Bazkide ez direnak: 6,00 €/hiruhileko

7.- Jarduera desberdinak:

Astean 2/3 saio, muskulazioaz gain aerobic, mantentzeko gimnasia edo arte martzialak egiteko:

- a) Astean bi saio - bazkideak 31,00 €/hilean
- bazkideak 86,80 €/hiruhileko
- bazkide ez direnak 42,20 €/hilean
- bazkide ez direnak 116,70 €/hiruhileko
- b) Astean hiru saio: - bazkideak 34,50 €/hilean
- bazkideak 94,50 €/hiruhileko
- bazkide ez direnak 46,70 €/hilean
- bazkide ez direnak 127,80 €/hiruhileko

Erandion erroldatutako 65 urtetik gorako pertsonak %50ekok hobaria izango dute epigrafe honetako zerbitzuetan (bosgarren eta seigarren puntuetan izan ezik), beren familia unitateko sarrera garbiak hilean 600,00 eurotik beherakoak badira.

Ñ.- FITNESS

- Bazkideak: 23,35 €/hilean
- Bazkide ez direnak: 31,00 €/hilean
- Bazkideak: 61,10 €/hiruhileko
- Bazkide ez direnak: 86,80 €/hiruhileko
- 10 saioko bonuak - bazkideak 27,80 €
- Bazkide ez direnak: 45,00 €
- Saio bakarra: bazkideak 3,10 €
- Saio bakarra: bazkide ez direnak 5,00 €

Erandion erroldatutako 65 urtetik gorako pertsonak %50ekok hobaria izango dute epigrafe honetako zerbitzuetan, beren familia unitateko sarrera garbiak hilean 600,00 eurotik beherakoak badira.

O.- SPINNING

- a) Astean bi saio: - Bazkideak: 22,10 €/hilean
- Bazkide ez direnak: 29,00 €/hilean
- b) Astean hiru saio: - Bazkideak: 31,00 €/hilean

- Bazkide ez direnak: 42,80 €/hilean

P.- MASAJEA

- Bazkideak: 15,00 €/saioa
 - Bazkide ez direnak: 20,60 €/saioa
 - 5 saioko bonua: bazkideak..... 66,70 €
 - 5 saioko bonua: bazkide ez direnak..... 91,70 €
 - 10 saioko bonua: bazkideak..... 127,85 €
 - 10 saioko bonua: bazkide ez direnak..... 179,00 €

Q.- ARETOKO DANTZAK ETA YOGA

a) Astean ordubete eta 30 minutu: - Bazkideak: 16,00 €/hilean
 - Bazkide ez direnak: 23,90 €/hilean
 - Bazkideak: 42,00 €/hiruhileko
 - Bazkide ez direnak: 65,75 €/hiruhileko

b) Astean bi ordu - Bazkideak: 21,70 €/hilean
 - Bazkide ez direnak: 34,20 €/hilean
 - Bazkideak: 59,90 €/hiruhileko
 - Bazkide ez direnak: 95,65 €/hiruhileko

Erandion erroldatutako 65 urtetik gorako pertsonak %50ekok hobaria izango dute epigrafe honetako zerbitzuetan, beren familia unitateko sarrera garbiak hilean 600,00 eurotik beherakoak badira.

S.- UDALERRIKO IKASTETXEAK

Udalerriko ikastetxeek aurretiaz programatutako jarduerak egin ahal izango dituzte bertako ikasleek, ezarritako tasak ordaindu beharrik izan gabe, honako kasu honetan izan ezik: pertsona pribatuek edo/eta erakunde publikoek finantzatutako jarduerak.

T.- TXARTELA GALTZEA

Txartela galdu edo apurtu bada, berria egitea2,50 €

4. ARTIKULUA.- KUDEAKETA ARAUAK.

1.- Bazkideek zein kiroldegiko instalazioak erabiltzeko tasak ordaindu dituzten pertsona guztiek izango dute udal kiroldegietarako sarbidea.

2.- Bazkideek eta udal erakundeak antolatutako jarduerak izango dute beste edozein erabileraren aurrean lehentasuna.

3.- Irakasle baten laguntzaz egiten diren jardueretarako lehenengoz izena ematen

duten erabiltzaileek edo jarduera horretara bi hilabetez joan gabe egon ondoren berriz joan nahi dutenek, ½ hilabetezko tasak ordaindu behar dituzte, dagokion hilabetezko azken hamabostaldian.

5. ARTIKULUA.- KOBARRANTZA

1.- Ordenantza honetan araututako tasa ordaindu beharra sortzen da: Ordenantzako hirugarren artikuluko 2) idatz-zatian adierazitako jarduera edo zerbitzuen emakida hasten den unean, hau da, kiroldegira sartzean zein kiroldegiko instalazioak egun eta ordu jakin batean erabiltzeko erreserba eskaria egiten denean, baldin eta baiezko erantzuna jasotzen bada, erabiltzeari uko egiten zaiola 24 ordu lehenago jakinarazten denean salbu.

2.- Tasaren ordainketa: Ordenak arautzen dituen kiroldegietara sartzean egingo da.

3.- Tasa hauei dagozkien zorrak premiamenduko administrazio prozeduraren bidez kobratuko dira.

4.- Erabiltzeak jardueraren bat bere borondatez uzten duenean ez zaio dirurik itzuliko

XEDAPEN GEHIGARRIA

Aurrekontuei buruzko Foru Arauen bidez zein zuzenean aplikagarri diren bestelako arau edo xedapenen bidez Tasaren araubidean gertatzen diren alaketek Ordenantza Fiskal honen alaketara eragingo dute, besterik gabe.

AZKEN XEDAPENA

Honako Ordenantza hau 2008ko urriaren 29an izandako Osoko Bilkuran aldatu du Udalbatza Osoak, eta 2009ko urtarrilaren lehenetik sortuko ditu ondorioak, harik eta aldatzea edo indargabetzea erabaki arte. Ordenantza fiskal honen zati bat aldatuz gero, aldatu gabeko gainontzeko artikuluek indarrean iraungo dute.